

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2022ko otsailaren 24a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:07

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- 2021eko 4. hiruhileko berankortasun-txostenaren berri ematea.
- 2.- Abenduaren 30eko 667/2021 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretuak 13/2021 zenbakidun kreditu-aldaketaren espedientea onartzen du, kreditua transferitzeko modalitatean.

- 3.- Otsailaren 18ko 50/2022 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretuak 3/2022 zenbakidun kreditu-aldaketaren espedientea onartzen du, kreditua txertatzeko modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 4/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 5/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 6.- Onartzea, egoki bada, izaera urbanoko lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokituta.
- 7.- Onartzea, egoki bada, baldintza administratiboen eta baldintza teknikoen agiriak, Orioko udalerrian ibilgailuen aparkamendua arautzeko eta ekipamendua hornitzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren arteko hitzarmena, etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.
- 9.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- 2021EKO 4. HIRUHILEKO BERANKORTASUN-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

2.- ABENDUAREN 30EKO 667/2021 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUAK 13/2021 ZENBAKIDUN KREDITU-ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEN DU, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 13/2021 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 80.229,00 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- OTSAILAREN 18KO 50/2022 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUAK 3/2022 ZENBAKIDUN KREDITU-ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEN DU, KREDITUA TXERTATZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 3/2022 espedientea kreditua txertatzeko modalitatean egina dago eta 2.592.042,53 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 4/2022 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 4/2022 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 50.658 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko otsailaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 4/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 50.658 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzaitza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharririk jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 5/2022 ZENBAKIDUN KREDITU ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 5/2022 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 357.933 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko otsailaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 5/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 357.933 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, IZAERA URBANOKO LURSAILEN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA, KONSTITUZIO AUZITEGIAREN JURISPRUDENTZIARA EGOKITUTA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza-batzordeak 2021eko martxoaren 2an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA izaera urbanoko lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokituta.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK, ORIOKO UDALERRIAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ETA EKIPAMENDUA HORNITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza-batzordeak 2022ko otsailaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA baldintza administratiboen eta baldintza teknikoek agiriak, Orioko udalerrian ibilgailuen aparkamendua arautzeko eta ekipamendua hornitzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko.

Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate zinegotziak hitza hartzen du, Hirigintza-batzordeko presidentea den aldetik, eta adierazten du, 2022ko ekainaren 1etik aurrera, ibilgailuak aparkatzeko erregulazio-sistema berri bat (TAO) jarriko dela martxan Orion.

Sistema hori urte osoan aplikatuko da. Lehiaketa honen bidez adjudikatuko da zerbitzua eta kontratuaren iraupena, gehienez ere, lau urtekoa izango da, luzapenak barne (2 urte + 1 + 1). Ainarak azaltzen du zerbitzu hau kanpora ateratzearen arrazoia udaltzaingoaren lan-karga gutxitzea izan dela. Azkenik, herritarrei adierazten die lasai egon daitezkeela, zerbitzuak ez dielako, orokorrean, aldaketa handirik ekarriko beren eguneroko jardunean.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gizarte-ongizate eta berdintasun-batzordeak 2022ko otsailaren 1ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- ONARTZEA Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren arteko hitzarmena, etxeoko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari lankidetzeta-hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza eta adierazten du nabarmendu nahi duela udal-dinamikan izan den joera-aldaketa, udal-espeditentak azkarrago tramitatzen direlako orain. Hori dela eta, eskerrak ematen dizkie inplikaturako eragile guztiei eta horrela segitzea espero duela esaten du.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, Jose Angel Iparragirre zinegotziak egindako aipamena eskertzeko, eta adierazten du hori talde politikoen eta zinegotzien lanagatik dela eta, beraz, eskerrak ematen dizkie guztiei.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,